

# **MASKARADAK ETA BUHAMEAK ERAKUSKETA** **HEBENTIK ELKARTEAK AURKEZTURIK**



Erakusketa honek Xiberoako maskaradak aurkezten ditu, eta zabalago, Europan dauden forma berdintsuak, tzigano edo buhamearen pertsonai ezinbestekoa agertuz. Beraz Tziganoen historia ere aipatzen du Euskal Herrian.

Nicole Lougarot-en ikerketa lanetan bermatzen da nagusiki, bai eta dokumentu anitzetan ere, maskaraden ohiturak eta tzigano populua aipatzen dituztenak.

Hauetaz egina dago :

- Bi ordenagailu instalazio batetan sartuak (Gonzalo Etxebarriak asmatua). Hauetan webgune baten edukia da, euskaraz eta frantsesez, idatziak, argazkiak eta filmak biltzen dituenak.
- Xiberoako maskaradetaz 15 argazki, Eliane Heguiaphal-enak (40X60, paretetan ezartzeko)
- Xiberoako maskaradakariak oro miniaturaz, Hélène Jacquilot-et sortuak (28 pertsonai tauletan loturik, mahai batetan pausatzeko)



***2018-ko urtarrilaren 16-etik otsailaren 8 arte***

***Baionako Euskal Museoan***

***Xokoa gelan, sarrera urririk***